**ERREPORTAJEA M11, ELGOIBARTARRAK MADRILEN · GEHIGARRIA KILIBARREN**
**KULTURA INSTRUMENTU TALDEEN III. LEHIAKETA MARTXOAREN 27AN ETA 28AN**

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA 2004ko martxoaren 26a/XII. urtea/482. zkia




## SAN VIATORREKO FRAILEEK 2006AN ITXI NAHI DUTE PILAR IKASTETXEA

# Gurasoak eta ikasleak irtenbide bila

"JENDEARENGAN ERRAZAGO ERAGITEN DU BEGIKOTASUNA ZORIGAITZAK, ZORIONAK BAINO"
(Simone de Beauvoir)

# D'9ustondo, S.L.

EDARI BANATZAILEAK



3 e,ta 6 botitetako *ditugu*

kasak rnestat%.en






Errioxako **David Moreno** bodegak

t. I

- Errioxako ardoak
- Urteko ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Jumes Serra", "Faustino", "Martinez", "Juve Camps"... Orujoak
- Kontzerbak



***San Rake, 32 - 34 Onstituto parean)*** ***Tet« 943 74 09 92***





## Herritarren kontura nelozio ederra egiten duten

Zuetako askok bezala, ezinbestean egunero lanera joateko automobila eta A8 autopista hartu behar ditut nik ere. Eusko Jaurlaritzak errepide eta garraio arloan daraman politika erabat desegokia iruditzen zait, baina azkenaldian A8an ikusten ari naizenak sutan jarri nau. Iaz, bidesarearen ustiapena Europistasen esku pribatuetatik (BBK, KUTXA, Ferrovial, John Laing) Foru Aldundien esku publikoetara pasa zenetik gauza bi gertatu dira: lehenengoa, nahiz eta prezioa jaitsi bidesariak bere hartan dirauela, eta bigarrena eta garrantzitsuena: azken urte guzti hauetan egin gabe zeuden "hobekuntzak" egiten hasi direla.

Datu hauei erreparatuz, ondorio bakarra ateratzen du nire poltsikoak: esku pribatuetan egon zenean bidesaria garestiagoa bazen, eta hobekuntzak orain egiten hasi badira (gure zergek ordainduko dituztenak)... zenbat milaka milioitako diru irabaziak izan zituen Europistasek urte guzti horietan zehar? Erantzuna, nola ez, ustiapenaren luzapena erabaki zuten politikariei eskatu beharko diegu. Kargu publikoak utzi, eta gaur egun autopista zein eraikuntza enpresa onuradunetan kargu garrantzitsuak dituzten zinegotzi, alkate ohi, eta bestelako "enpresa gizonei". Gaurkoan ez dut izenik aipatuko, bilatu dezala bakoitzak bere herriko udal korporazioetan.

Bitartean, zergak ordaintzen eta gutxi batzuen poltsikoak berotzen jarraituko dugunez, A8aren bidesariari intsumisioa egitea proposatzen dizuet.

Lorea Perez de Albeniz

## "Ixilik geratu behar nuen,...

gero dena prentsan (Barrenen) agertzen bait da". Hauek herriko alkatesaren hitzak, nire aurreko idatziaren ondoren gazte asanbladako ordezkariei esana. Haserretu egin zitzaigun beraz Maribi, jakina delako arraina ahotik hiltzen dela, eta kasu honetan esanetik izanetara aldea dagoenez, damutu egin zitzaigun lehenago ahoa irekitzea, eta oraingoan ixilik gelditzea nahi zuen, beste hamaika aldiz egin izan duen bezala. Bai, hamaika aldiz gelditu zera ixilikan alkatetzara iritsi zeranetik. Gogora ditzagun bakan batzuk: ez zenuen ezertxo ere esan zuek babestutako legeengatik herriko biztanleen ordezkaritza bat, udaletxean zegokien tokia eskuratu ezinik gelditu zenean. Ahoa itxita eduki zenuen Jaioren ongietorrian, Espariaren zerbitzuan diharduten indar armatuek hau eragotzi zutenean, udaletxeko mikrofonoa eraman zutelako agian? Indar armatu berek ikurriñak apurtzen zituztenean ere zu ixilik, eta hori Sabinok asmatutako ikurra zela. Honen harira ez zenuen txosnen batzordearekin biltzerik nahi izan haseffe zeundelako, zergaitik? Ixilik gelditzen zaren moduan, Españaren beste indar armatuek, herria okupatu eta edonor identifikatzem behartzen dutenean.

Gai izan zineten udaletxean Larizen aldeko mozio bat sartzeko, baina gero zertarako eta berriro ere ixil-ixilik geratzeko, nola liteke hau? Ibarretxek "alimarias"en kontrako elkarteratzea deitu zuenean, ez zinen ixilik gelditu ordea eta zure zainpeko uniformatuak herrian zehar bidali zenituen megafonia pasa zezaten; ia noiz ikusten zaitugun munipen kotxe barruan euskal errepresaliatuen aldeko elkarteratze batetara deika, gaur bertan duzu aukera, hileko azken ostiraletan Etxeratek deitutako elkarteratzeak izaten baitira.

Eta horrelako zenbat? Kontuz beraz esana eta izanarekin, begiak eta belarriak edonon baititut. Portzierto, duela bi aste, kontzertu baten aurretik afaltzen ari ginela, ondorio honetara iritsi ginen: gazte izateari uzten zaio, barikua iritsi eta nekatua egoteaz gain ezertako gogorik ez dezunean.

Nestor Fuente

Kexak

**MOtZ MOtZ** ........................................ 8

**gehigarria** ................................................ 13

**kiROlAk** .................................................. 20

2004-111-26

# Urruzunoren begi ezkutua

## Euskaldunon irrintzixa



AMATATU: Itzaliren sinonimoa da.

ITZALI: Pizturen aurkakoa da. Ikustea galerazten du.

PIZTU TXALAPARTIA: Euskaldunak nola zapaltzen gaituzten ikusita, EUSKALDUNOK egin behar doguna: Barruko TXALAPARTIA PIZTU ETA IRRINTZIXA BOTA!!!!

Bestela esanda, EUSKALDUNON ESKUBIDE GUZTIAK zapaltzen dizkigutelako, ixilik egoteari laga, eta EUSKALDUNOK, DANOK batera... Txalapartia atera! Irrintzixa mendi tontorrian! EUSKALDUNAK GERALA ENTZUN DEZATEN!!!

Amaia Urzelai

## HERRI BATI!

2006. urtean haurrak Ierrokatzera joan behar dutela iragartzen duen "dirt, dan, don" soinua entzuteari laga beharko diogu. Badoan beste soinu bat, horrenbeste familiaren sostengua zen Sigma enpresakoa joan zitzaigun moduan. Orain, ikastetxe batetaz ari gara, ordea, haur askoren barreak, abestiak ikasgelan eta klarionak arbelean ateratzen duen soinua entzuteari laga beharko ote diogu? Guzti hau oroitzapenen zakuan sartzeko bidean al dago? Izan ere, horrenbeste ordu bertan pasa dituztenek ikastetxea hainbat urtez egon den tokian ikusi ezean, oroitzapenak lausotu egiten dira.

Barka iezadazue inor mintzen badut, baina San Viatorgo klerikoen eta herri honetako familien errua da hau guztia, zergatirik ez dakigula bertan behera utzi baitute.

Jadanik ez ditugu ikusiko haurrak San Blas opilak eskuetan dituztela bedeinkatzeko bidean, horrenbeste urtetako ohitura bertan behera geratuz. Ezta Ostegun Gizenean Plaza Handian ere, dantza alaiekin inauteriei hasiera emanez. Bakearen Egunean ere ez ditugu ikusiko. A ze pena!

Urteko 17 haur gehiagorekin ziur Kong-kong-eko zubia igarotzen duten neska-mutil mordoa ikusten jarraituko genukeela.

Gauzak horrela dira, garaiak ere aldatu dira eta jadanik ez dago modan Pilarreko Amabirjinaren Ikastetxea, nahiz eta bertatik hainbat lagun atera diren bizitzarako ederki prestatuta.

Inoiz izango ote dugu akorduan? Agian!

P.F.
10180178-X

ASTE KARIA

# BaRRen

Nafarroa enparan1za, 2
20870 ELGOIBAR
Iz 943 74 41 12
Publizitatea:
t• 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posto:
barren©topagunea.com
Helbide inlormatikoa:
www.1opagunea.corribarren
ARGIDIRATUJLE11.
Elguibarko Izarra

LAGeNTZAILEABgelazarke UrialatioonceormsA Ainhoa Ancionegii ZUZERDARIA Asier Orbea GEHIGARR1EN AFIDURADUHA Maite Unarts PUBLIMIATEA Arnaie Erldzia MAKETATZAILEA Jaione UnenUe GERENTVA Jon Peli UtigUen KOI.ADORATZAn.EAS Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edrrrne 13ilbao, Gotzon Arrieta, Lorea PereZ de Albeniz, Joidn Martinez, Montse Arregt Juentlo GorostIza, Kohoe KE, eta LItnizuno AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburdk bonztarsom Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA 33.1.03892 ISSN 1139-1855

1,10,1,1K19.111

*ElgoitYarko Udatak, Eusko Jaurladtzako Kultura Sallak eia Foru Aldundiak diruz lagundulako aldizkaria.*

kutxa zuri esker

1DANOBAT nERRAIMIA ANGOITII GRUPO DANOBAI ESTARTA GRUPO DANOBAT

# Kexci k

## 1(i511211All

• **Pilar Ikastetxeko ikasleak etorri zaizkigu, beraien ikastetxea ixtea oso gaizki iruditzen zaiela esanez: "Ez** dago eskubiderik. Irakasle guztiak lanik gabe geratuko dira, eta ikasleok beste ikastetxe batzuetan eman beharko dugu izena. Udalari laguntza eskatu nahi diogu, ikastetxea zabalik mantentzeko". Bide batez, joan zen astean Pilar Ikastetxea zabalik mantentzearen aldeko kontzentrazioan parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.



• **Karkizano auzoko bizilagun batek adierazi digunez, lau egun daramatzate lo egin ezinda trenbideko obrak direla-eta:** "Ez dakigu zeinek eman dien gauez lan egiteko baimena, baina Karkizano auzoko bizilagun batzuk lau egun daramatzagu lo egin ezinda. Goizetan lanera joan behar dugula kontuan izanik, ez dago hainbeste zarata ateratzeko eskubiderik. Egunez trenbidea itxi, eta autobus zerbitzuak gehitzea izan daiteke irtenbide bat. Udalak aukera hau aztertu egin beharko luke, gure osasuna erabat galdu aurretik".

• Herriko gazte talde batek azaldu digunez, **Elgoibarren oso parke gutxi daude: "Elgoibarren** oso parke gutxi dago, eta daudenak oso egoera txarrean daude. Obrak direla-eta, Madalako parkea ere kendu egin zuten, eta oraindik ez dute berriz ipini. Umeak jolasteko leku gehiago behar dugu".

## 0111D111

• Hainbat herritar etorri zaizkigu Barrenera **Andikano baserritik Maltzagaraino doan bidea pribatua den galdetzen.** Dirudienez, bertan pasiatzen ari direla, obretan dabiltzan langileek bide horretan ezin dela pasiatu esan diete, bide hori pribatua delako. Udaletxeko hirigintza sailera deitu dugu galdera luzatzeko, eta esan digutenez, bidea beti izan da pribatua. Udaletxekoek uste dutenez, Deba ibaiko obrak bukatu arte, ezingo da bide horretan pasiatu, baina ondoren, bertan ibiltzeko arazorik ez dela egongo.





# M-11 elgolbartarrak

*Martxoaren 11n Madrilen izandako atentatuak hankaz gora taga zuen Espainiako hiriburua. Euskaldunok oso gertutik jarraitu genuen han gertafu zen guztia, baina batzuk are gertuago biztizeko aukera tzan zuten. Hau da aste honetako erreportajean bildu dilugun hiru elgoibartarren kasua. Hirurak bizi dira Madrilen eta martxoaren 1 1 ko sarraskia eta ondorengo egunak nola bizi izan zituzten jakin nahi izan dugu.*
*Ion Rementeria elgoibartarra saskibalotan jokatzera joan zen Madrilera 15 urterektn. 25 urte daramaiza Espainiako hiriburuan. Leire Dieguez eta Amaia Jauregi koadrila bereko elgoibartarrak dira, baina sei hilabete daramatzate biak Madrilen bizitzen. Leire etxetik irteteko gogoak eta abentura nahiak bultzatuta iritsi zen Madrilera. Amaiaren kasua ezberdina da, medikuniza ikaslea baita eta urtebete kanpoan ikasteko beka batt esker dago Madrilen.*



## Ion Rementeria

### "Bonba batek eztanda egin zuen ordu berean hartzen nuen trena duela bi urte "

• Noiz eta nola jakin zenuen martxoaren Iln Madrilen izan zen atentatuaren berri?
Goizean, umeak eskolara eramateko etxetik irtetzear nengoela telefonoz deitu zidan Iruriean bizi den koinatak.

z Zer izan zen burura etorri zitzaizun lehen gauza?
Etxetik gertu izan zenez, eta ni neu ibili izandako lekuan gainem, etxekoak ondo egoteaz poztu nintzen.

• Nolakoa izan zen Madrildarren erantzuna atentatuaren aurrean?
Oso ona. Baina nik uste edonon antzerakoa izango zitekeela. Jende asko irten zen odola ematera, eta hori bakarrik ez, adibidez, anbulantzia asko zebilenez batetik bestera, kaleak libre lagatzeko autoa ahalik eta gutxien erabiltzeko eskatu zutenean trafikoan beherakada handia nabaritu zen.

Zure eguneroko bizimodutik gertu aI daude atentatuak gertatu zireneko hiru guneetako bat?
Bai, Santa Eugenian bizi gara.

• Lehergailuak jarri zituzteneko trenetako bat erabill izan al duzu inoiz?
Orain dela bi urte arte trenean joaten nitzen lanera, eta gutxi gora behera bonbak eztanda egin zuten orduan hartzen nuen trena.

• Familiarteko edo lagunen bat bertan egon zitekeen beldurrik izan al zenuen?
Familiartekorik ez baina lagun edo ezagunen bat bai. Gure portaleko bi auzotar zaurituak izan ziren.

• Burutik kendu ezinda geratu zitzaizun irudi bat?
Seme gazte bakarra galdu zuen aitaren negarra.

■ Egon al zinen ostiralean egin zen manifestaldi erraldoian?
Ez, baina Santa Eugeniako tren geltoki aurrean egin zen konzentraziora joan ginen. Bertan jende artean tristura zen nagusi, eta gehien ikusten ziren kartelek "Nor izan da?" galdera azaltzen zuten.

• Lasaiago sentitu al zinen talde islamiar erradikalen ekintza terrorista izan zitekeenaren funtsa hartzen joan ahala?
Alde batetik bai, baina horrelako hilketa gertu ikusteak lasaitasunik ez du ematen.

■ Hauteskunde bezperako gauean PPk Genova kalean duen egoitza aurrean izan ziren kontzentrazioen berri izan al zenuen?
Bai, telebistan entzun nuen. Kalean gertatzen ari zenaren irudia zen. Jendeak egia jakin nahi zuen.

• Zer irudi daukagu euskaldunok madrildarren artean?
Iritzi desberdinak daude, eta jende askok gutaz kumunikabideetan esaten dena baino besterik ez daki. Nik uste une bakoitzean gobernuan dagoen alderdiaren joerak eragin nabarmena daukala jendearen iritzian, eta batzuek mehatxu gisa ikusten gaituztela.

▪ Eta bertako komunikabideetan?
Euskal arazoa oso politizatuta dago eta komunikabideetan hau nabari da. Onartezina eta lotsagarria da batzuen jokabidea, adibidez, euskal izenak gaztelaniaz idaztean. Antonio Blair eta Jorge buruz aritzean ez ordea.

# Madrilen

## leire Dieguez eta Amaia Jauregi





## "Amorrazio girua zan nagusi, inpotentzia eta desesperaziva"

## "Inpotentzia sentitxu naban zauritxuak ezin atenditziagatik"

• Noiz eta nola jakin zenuen martxoaren atentatuaren berri?

Leire: Goizeko 8:30ak aldera enteratu nintzan anaixak deitxu zialako, ni, suertez, lo bainauan. Segiduan piztu naban telebista.

Amaia: 8:20ak aldera atera nintzan etxetik ospitxalera juteko. Normalian goizetan irratixan albistiak entzuten ditxugu, baina egun hartan ez. Ezer jakin gabe ailegau nintzan ospitxalera. Han, gelako neska bat topau naban oso urduri eta berak azaldu zian gertautakua.

• Noiz jabetu zinen sarraskiaren benetako neurriaz?

L.: Lehen irudixak ikustiakin bat konturatu nintzan kristona izan zala. Hala ere, eguerdixan, Atocha-tik pasa bihar naban eta hor konturatu nintzan, pasatako guztixa erreala zala. Anbulantziak eta polizien soinuak besterik ez zian entzuten.

• Medikuntza ikasten ari zara Madrilen. Zer sentitu zenuen medikuntza ikasle zaren aldetik?

A.: Alde batetik lagundu nahixa, zauritu mordua ailegatzekuak baizian, baina bestalde, inpotentzia handixa, 6. mailan egon arren, nahiko berde baikaude pazientiekin aritzeko. Dana dala, mila gauza ein leikez laguntzeko holako situazio baten eta hala ere etxera jutia hobe gendula esan ziguten. Jende asko egotia ere ez omen da ona, elkarri traba eitxeko arriskua baitao.

• Lehergailuak jarri zituzteneko trenetako bat erabili izan al duzu inoiz?

L.: Normalian metruan ibiltzen naiz. lnoiz hartu izan dot trena, baina ez ordu horietan. Atochako geltokixa bizi naizen lekutik gertu xamar daukat eta baitxa "12 de octubre" ospitxala ere.

A.: Ez, baina Atotxan askotan egon naiz.

• Nolako giroa bizi zen Madrilgo kaleetan martxoaren lln?

L.: Pertsonalki, oso gogorra izan zan. Amorrazio girua zan nagusi: inpotentzia eta desesperaziva, baina ez dago hitzekin deskribatzerik.

A.: Gertatutakua barneratu ezinda zabilen jendia, triste eta amorratuta. Kontzentrazivak edonon sortzen zian.

• Lasaiago sentitu al zinen talde islamiar erradikalen ekintza terrorista izan zitekeenaren funtsa hartzen joan ahala?

L.: Bai, beldurrakin nenbilen atentatuaren arratsalde hartan. Neure buruari esaten nion: "edozeinek jakingo balu euskalduna naizela... edozer gerta liteke". Islamiarrak izan ziala jakitzia lasaigarrixa izan zan.

• Zer iruditu zaizu komunikabideen jokatzeko modua?

A.: Komunikabidietan behin eta berriz ETA izan zala esaten zabizenez, azkenian hori sinistuta nauan. Gero, Euskal Herritik etxekuek eta lagunek deitxu ziguten ETA ez zala esaten, baina hemen, denbora guztixan lelo berdinakin matxakatzen gintuzten.

■ Madrilen daramazun denboran izan al duzu arazorik euskalduna izateagatik?

L.: Ez, guztiz kontrakoa. Lanean ere euskaraz egiteko aukera izan dot, Euskaltel 11840 informazio zerbitzurako, hain zuzen ere. Enpresan, erdaldunak ziren gehienak eta oso ondo hartu naute. Juergan beste kontu bat da. Ezagutu genitxun mutil batzuek nunguak ginan galdetu eta euskaldunak ginala esan genienian, "el pais vasco, que asco" erantzun zigun batek. Holakuetan isilik egotia besterik ez dago, ez du merezi eztabaidan sartziak.

A.: Jende gehixenarekin ez dot arazorik euld. Gelako jendiakin oso ondo konpondu naiz. Baina euskarak ez dabala gaur egun komunikatzeko balio, ikastia denbora galtze bat dala ere entzun bihar izan dot.

# 5.513.491,90 euro inbertituko ditu Udalak Izartu II proiektuan

## Herriaren apainketan 870.000 euro inbertituko ditu

Joan zen asteazkenean, martxoaren 17an ospatu zen Udal Plenoan aho batez onartu zuten Izartu II proiektua. 5.513.491,60 euroko kostua izango du programa honek, eta erdia Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du. Besteak beste, herriaren apainketa, ingurugiroaren hobekuntza, herrirako sarbideak eta gazteentzako guneak egingo dira. Proiektu hau, 2004tik 2008ra bitartean gauzatuko da.



Udalak 121.800 euro inbertituko ditu enpresen berrien eta orain arte martxan daudenen promozioan. Erreminta Makinaren sektorean 10.440 euro inbertituko ditu Europar Batasunak eskatzen dituen erronka berriei aurre egiteko. Honekin batera, enpresa eta Udalaren artean on-line bidezko harremana martxan jarri nahi da, eta horretarako 13.920 euro erabiliko dira.

Teknologia berrien atalean 104.400 euro inbertituko dira. Herrian bota duten kablea aprobetxatuz, herritarrei administrazio kontuak internet bidez egiteko aukera eskaini nahi zaie.

### Gaztegunea

Udalak Ikastola aurrean egiten ari diren Babes Ofizialeko Etxeen azpian gazte lokala jartzeko asmoa dauka. 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako gunea izango da. Adin horretako 386 gazte daude Elgoibarren. Gazte lokalean 707.000 euro inbertituko dira. Bestalde Mupen enpresa zegoen lokala egokituko du Udalak Gaztetxea jartzeko.

### Herriaren apainketa

Herriaren apainketan lorategiak, seinalizazioa, eraikuntzen fatxadak eta bideak hobetuko dira. Guztira, 870.000 euro erabiliko dira.

Bestalde, 25 langile baino gutxiagoko enpresei, ingurugiroa gutxiago kutsatzeko plan bat egokituko zaie. AIor honetan 111.360 euro inbertituko dira.

Honekin batera, Sigma auzotik herrirako sarbidea hobetu asmoz, Olaso gainen errotonda bat egingo dute, hilerri aurreko gurutzegunean, alegia. Azkenik, Altzolan ere hobekuntzak egitea aurreikusten da.

# KZgunean izena emateko lekua dago oraindik

KZguneak martxorako antolatu dituen ikastaroetan izena emateko Iekua dago oraindik. Martxoaren 25etik apirilaren 7ra Internet KZgunea ikastaroa eskainiko da. Besteak beste, korreo elektronikoa, interneten nabigatzen eta bideo konferentziak egiten irakatsiko dute. Nagusiweb ikastaroan parte hartzeko ere lekua dago. Ikastaro hau 50 urtetik gorakoei zuzenduta dago, eta besteak beste, ordenagailuaren oinarrizko erabilpena eta interneten nabigatzen ikasiko dute. Martxoaren 29tik apirilaren 2ra eskainiko da ikastaro hau eta 10 orduko iraupena izango du. Interesatuek KZgunean eman dezakete izena, edo 943 74 28 88 telefonoan.

# Gaindu enpresak 14,6 milioi dolar fakturatzea aurreikusten du Itilexikon inauguratu duen plantan

Elgoibarko Gaindu enpresak planta berri bat inauguratu du Mexikoko Quersetaro hirian, eta 2004. urtean 14,6 milioi dolar fakturatzea aurreikusten du. Enpresa berri hau 900m$^2$ko pabiloi batean kokatuta dago. 250m$^2$ bulegoek hartzen dute, eta tailerrak 650m=ko neurria dauka. 17 lagun ari dira bertan lanean, bi administrari eta 15 ingeniari.




Gaindu Mondragon Assembly enpresa Mondragon Kooperatiba Taldeko partaideetariko bat da. Bere kapitala erdibana daukate Elgoibarko Gaindu enpresak eta Aretxabaletan dagoen Fagor Sistemas enpresak. 90. hamarkada erdialdetik bi enpresa hauek makina ugari exportatu dituzte Mexikora, bezeroei zerbitzu hobeagoa eskaintzeko asmoz. Gaindu Mondragon Assembly enpresaren lana diseinuan eta kotxe industriari lotutako muntaian oinarritzen da, batez ere.

# Udal Liburutegiko X. Idazlan eta Marrazki Lehiaketa apirilaren 23an izango da

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna urtero bezala Udal Liburutegiak Idazlan eta Marrazki lehiaketa antolatu du. X. ekitaldia izango da aurtengoa, eta ikasleek landu beharreko gaia, "liburuak badaki hegan egiten" izango da.

Urtetik urtera, ikasleen partaidetza handituz doa. Iazko lehiaketan partaidetza handia izan zuen lehiaketa honek. 400 lanetik gora aurkeztu ziren: 271 marrazki eta 130 idazlan.



Marrazki Lehiaketan Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik 4. mailara arteko ikasle guztiek hartu ahal izango dute parte, eta idaz]an ]ehiaketan 5. eta 6. mailakoek.

Lanak gehienez orrialde batekoak izan beharko dira eta apirilaren 2a baino lehenago entregatu beharko dira Udal Liburutegian. Irabazleen izenak apirilaren 22an, arratsaldeko 17:00etan jakinaraziko dituzte Liburutegiko arduradunek.

Irabazleek liburu sorta ederraz osatutako oparia jasoko dute, eta aurtengoa X. urteurrena denez, sorpresa ugari izango dira. Sari banaketa, apirilaren 22an bertan egingo da King-Kong azpian.

## Jon Arretxe idazleak hitzaldia eskaini zuen Ikastolan



Irakurtzeko zaletasuna bultzatu eta euskal idazleak ikasleengana gerturatzeko helburuarekin, Jon Arretxe ida7leak hitzaldi bat eskaini zuen Elgoibar Ikastolan. Iazko ikasturtean Hasier Etxeberria idazle elgoibartarra etorri zen, eta oraingo honetan Jon Arretxe idazlea izan da aukeratua. Joan zen asteartean, hilaren 23an, "Hanesi Handirantz" liburuari buruzko hitzaldia eskaini zien DBH 4. mailako ikasleei.

Ordu bete inguru iraun zuen hitzaldiak, eta bertan liburua idazteko kontuan izan zituen pertsonaien eta lekuen diapositibak erakutsi zituen. Ondoren, ikasleek liburuari eta bere beste zenbait lanei buruzko galderak egin zizkioten idazleari.

Ikastolatik adierazi digutenez, aurten ere oso gustura aritu dira, eta ekitaldiari buruzko balorazio erabat positiboa egin zuten.

## Ordu aldaketa izango da larunbatetik igandera bitartean

Bihar, larunbat gauetik igandera bitarteko gauean ordu aldaketa egin beharko da Europar Batasuneko arauei jarraituz. Martxoaren 27an ordubete aurreratuko ditugu erlojuak. Beraz, goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira. Ordua aldatzeko arrazoietako bat energia aurreztea da. Izan ere, energia gehiago erabiltzen dugu gaua heltzean eta goizetan ohetik altxatzen garenean. Horregatik martxoan egiten da lehen ordu aldaketa zenbat eta eguzki ordu gehiago izan etxe barruko argi artifiziala gutxiago erabiltzeko. Urriko aldaketa, berriz lehengora bueltatzeko egiten da, neguan eguzki ordu gutxiago baitago berez. Gogoratu beraz, asteburu honetan lo egiteko ordu bete gutxiago izango dela.

2:00

3:00



*I. URTEURRENA*
*2003ko martxoaren 25ean, 23 urte zituela hil zen*
*ALAITZ ZIALZETA BARRUTIAren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da San Bartolome Parrokian*
*larunbatean, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



## San Viatorreko fraileek Pliar ikastetxea ixtea erabaki dute

# ZER INIT11 DAUKAZU PILAR IKASTETHEIIi IXTEARE111 GAINEAN?



### LEONOR CARRILLO

**45 urte, etxekoandrea**

Pertsonalki lasai nago. Alaba gazteenak datorren urtean amaituko du Pilarreko etapa, eta ez dio erabaki honek eragingo. Hata ere, pena ematen dit oso gustura baikaude.

### AINHOA AYESTA

**11 urte, ikaslea**

Oso gaizki. Jende asko ikasketak amaitu gabe geratuko da. Ixtekotan ere, ikasleei zikloak amaitzeko aukera eskaini beharko litzaieke. Ezin da bi urtetan ikastetxea itxi.





### ESTHER LOPEZ

**43 urte, etxekoandrea**

Alaba 3. mailan dago, eta arduratuta gaude. Senarra ere Pilarren ikasitakoa da, eta argi zeukan alabak ere han ikasi behar zuela. Ikastetxeak aurrera egingo duen itxaropena daukagu.

### ASTERIO PEREZ

**36 urte, arotza**

Niri pertsonalki ez dit eragiten, baina ez dago ondo. Guraso horien Iekuan egongo banintz, oso arduratuta egongo nintzateke. Herriarentzat ikastetxe bat ixtea albiste negatiboa da.





### IOSEBA QUINTAS

**14 urte, ikaslea**

**DBH** 2. mailako ikaslea naiz, eta niri pertsonalki ez dit eragiten, baina nire anaia gazteari bai, eta ez dago ondo. Ikastetxez aldatzeak arazo handiak dakartza. Errua fraileena da.

### PATXI BETELU

**60 urte, jubilatua**

Ni bertan ikasitakoa naiz, baina garai hartan oso diziplina desberdina zegoen Pilarren. Ez naute sentimenduek lotzen baina pena ematen dit. Herriarentzat, eta batez ere, ikasle horientzat kaltegarria da.





MIEM1021
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAX

Ma a p ej taberna



ffi Oen /noil@ouum@fgno

041a4tyto
£4,.1.04:1»yt 741545

San Frantzisko, 6 0
te1.943 74 19 4 3

# osasuna

## ALERGIAK

Udaberria iritsi da, eta ezinbestekoa da garai honetan alergiei buruz hitz egitea. Biztanleriaren patologia zabalduenetakoren bat dira alergiak, eta sintomatologia ugariren bidez agertzen dira. Alergiak eragin desberdina dauka pertsona bakoitzaren arabera. Hauexek dira alergien ezaugarri kliniko sarrienak: asma, ekzema, urtikaria, angioedema, anafilaxia, rinitis alergikoa, sueroaren gaixotasuna edota medikamendu eta intsektu batzuen ziztadak sortutakoak.

**Akainek eta polenak sortzen dute alergia gehien**

Hautsean bizi diren akainak (akaroak) dira gure artean alergia gehien sortzen dutenak. Ondotik daude polenak eta sendagaiek eragiten dituzten alergiak. Akainak oso anniarma txikiak dira eta gizakien azaleko ezkatak jatea gustatzen zaie.
Oheetako maindireetan, koltxoietan, arropetan, ilean eta airean daude. 20-24 graduko tenperaturan eta %60ko hezetasunean egotea gustatzen zaie akainei. Alergiak errinitisa eragiten du, haurtzaroan eta nerabezaroan batez ere. Gaur egun, beste alergia batzuk ere agertu dira helduengan. Latexak, tatuajeen koloregaiek, piercing-en metalek eta anisakisak eragindako alergiak gero eta ugariagoak dira. Anisakisa arrainen zizare bat da eta euskal herritarren artean gero eta ohikoagoa da.



**Alergiak betiko dira, ez dira sendatzen**

Garaiaren arabera biziagoak edo ahulagoak dira alergiak baina ez dira desagertzen. Egiazko bitxiak imitatuz egindakoei alergia dien pertsona batek denbora luzez erabili ez dituen belarritakoak janzten baditu, lehenengoan edo bigarrenean ez du alergiarik nabarituko baina hiru egunez jarraian erabilita alergia eragingo diote. Alergia kontrolpean izatea posible da eta txertoak eragingarriak dira. Txerto batek alergia bakar baten kontra egiten du baina kasu gehienetan gaixoek gauza bati baino gehiagori diete alergia. Beraz, txertoak ez dira hain eragingarriak eta gaixo asko ez dira horietaz fidatzen.



**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**



## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Mea Kuntza naturaa, F. de Bach, masaia. makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Iñaki **Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 1 5:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

# Pilar Ikastetxeko ikasle, guraso eta irakasleek ikastetxearen itxieraren aurkako manifestaldia egin zuten

## 6 urte gehiago irekita mantentzeko eskatzen dute gurasoek

San Viator Kongregazioko fraileek Pilar Ikastetxea ixteko erabakia jakinarazi zutenetik, ezinegona izan da nagusi ikasle, irakasle eta gurasoen artean. Joan zen asteazkenean, hilaren 17an, ikastetxearen itxieraren aurkako manifestaldia egin zuten eskolako patioan. Ikaste, irakasle, guraso eta ikasle ohiak bildu ziren bertan, San Viator Kongregazioko apaizei irtenbide bat eskatzeko.



### 6 urte gehiago

Pilar Ikastetxeko patioa jendez bete zen, eta ikastetxea irekita mantentzeko kartelak ziren nagusi, ikasle eta hainbat gurasoren eskuetan. 2006. urtean itxiko dela adierazi zuten San Viator Kongregazioko fraileek. Gurasoen Elkarteak ikastetxez aldatzeak suposatzen dituen arazoak eragotzi nahi ditu. Horretarako, 6 urte gehiago ikastetxea irekita mantentzeko eskatzen dute, orain dauden ikasle guztiek, beraien ikasketak bukatu ahal izateko.

Aukera hau aurrera eramateko, San Viator Kongregazioak ikastetxearen jabetza gurasoei eman beharko dio. Gurasoen Elkartekoek azaldu zutenez, ikastetxearen jabetza lortzeko ez omen dute San Viator Kongregaziokoek arazorik jarri. Ondoren, Kooperatiba bat sortu eta Hezkuntza Departamentuari krisi plan bat aurrera eramateko dirulaguntzak eskatzea da helburua. Guraso Elkartekoak itxaropentsu azaldu dira, izan ere, duela urte batzuk Zarauzko La Salte ikastetxea egoera berean zegoen. Gurasoek hartu zuten ikastetxearen ardura, eta gaur egun oraindik, La Salle ikastetxea zabalik dago.

Momentuz garrantzitsuena denak elkarrekin eta batasunean mantentzea da, arazoari aurre egiteko.

## Pailazo Jaia izango da bihar, larunhata, Plaza Handian

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, Pailazo Jaia izango da bihar, hilak 27, Haur Hezkuntzako (2 eta 5 urte bitartekoak) umeentzat. Goizeko 11:30ean hasita, hainbat txoko desberdin jarriko dituzte Plaza Handian. Musikaz girotuta, haurrek tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute, eta tailer horietan parte hartuz gero, pailazoz mozorrotu ahal izango dira. Beraz, etxeko txikienek Plaza Handian dute bihar zita.



## IMH-DEA Doitasun Aretoa inauguratu zen hilaren 17an

IMH-DEA BROWN&SHARPE Doitasun Aretoa inauguratu zen Makina Erremintaren Institutuan joan zen martxoaren 17an. Areto hau martxan jartzeko 740.000 euro inbertitu dira, eta Europako Doitasun Areto onenen artean kokatzen da.



Ekitaldian, Josu Aboitiz, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Etengabeko Ikaskuntzaren Zuzendaria, Miguel Angel Mujika, Elgoibarko Udaletxeko Alkateordea, Jordi Edo, DEA-Brown& Sharpe S.A. enpresako Zuzendari Orokorra eta Joxean Egaña, IMHko Zuzendari Gerentea izan ziren.

Inaugurazio ekitaldira hurbildu ziren enpresetako, erakunde publiko eta pribatuetako eta lanbide heziketako ikastetxeetako ordezkariek Doitasun Aretoa bisitatu eta bertan erakustaldi teknikoak ikusteko aukera izan zuten. Goizeko jardunaldia, IMHko Museoaren bisitarekin bukatu zen.

Arratsaldez, Metrologian softwarearen kontzeptu berria eta PC-DMIS 3.6 metrologiako softwarearen gaitasun berriei buruzko hitzaldiak eskaini ziren.

KiliBaRRen

2004ko marixoaren 26a/XII. uriea/104. zkia

## Ion Lazkano eta Beñat Urain txirrIndulariek 2. eta 3. postua lortu zuten Abaskal Vlemorialean

### 111 txirrindularik hartu zuten parte

Pasa den ostiralean XXV. Abaskal Memoriala ospatu zen Eibarren. Kadete mailako 1 eta 2. urteko I 1 I txirrindularik hartu zuten parte 55,5 kilometroko luzera zuen lasterketan. 111 txirrindulari horietatik 85ek lortu zuten helmugara iristea.

Colchon Laxy taldeko Ion Lazkano eta Beñat Urain txirrindulari mendaroarrak bertan izan ziren bigarren eta hirugarren postua lortuz.

Lasterketa esprint bidez erabaki zen eta Altuna Auto taldeko Urko Eizagirre txirrindularia izan zen azkarrena, 1:20:17 denbora eginez.



*Beiiat eta Ion*

## Eskulan jaialdia In Leikek antolatuta



Joan den martxoaren 19an, San Jose egunez, Mendaroko In Leikeko begirale taldeak antolaturik Jai Egunean Eskulanean jaialdia izan zen Goñati pilotalekuan. Bertan eskulan, tailer eta txoko ezberdinak egon ziren Mendaroko haur guztientzat. Haurren sormena sustatzeko eta era berean, hauek entretenitzeko antolatu ziren ekintzok, aurpegia kolorez margotzetik hasi eta eskuz egindako eskulanetara. Aipagarria da haur asko eta asko hurbildu zirela bertara, arratsalde entretenigarri bat pasa zutelarik.

## 011io bilketa hasiko da Mendaron

Mendaroko Udalak sukaldeko olio bilketa martxan jarri du eta biztanleriaren kolaborazioa eskatzen du ingurua garbiago egon dadin. Sukaldeko olioa ontzi batean gordetzen da, kalitate desberdineko olioak nahastu daitezkeelarik. Ontzi guztiak baliagarriak dira: kristalezkoak, plastikozkoak, tetra-brikak eta abar, tantak galtzen ez dituzten bitartean. Martxoaren 6an, larunbatean, izan zen lehen bilketa Mendaroko Herriko Enparantzan eta mendaroar asko hurbildu zen bertara. Hurrengo bilketa Maiatzaren 8an izango da.



## Sagardotegira irteera

Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, datorren martxoaren 27an, Hernaniko sagardotegi batetara irteera izango da. Irteera autobus geltokian, 13:00 etan, eta itzulera iluntzean izango da bederatziak aldera. Badira urte batzu Gazte Asanbladatik txotx garaian sagardotegira irteera antolatzen dela. Aurten ere, halaxe izango da eta jende askok izena emate espero da.

## Mendi irteera Isabara

In Leike Elkarteak mendi irteera antolatu du Isabara, datorren apirilaren 2tik 4ra bitartean. Plaza mugatuak izango dira. Prezioa 35 eurokoa da (25 euro ikasle eta langabetuentzat) eta In Leikek kutxan duen kontuan sartu beharko dira. Martxoaren 28a da izena emateko azken eguna.
Ez da azken orduko izen-ematerik onartuko. Prezioaren barne ondokoa sartzen da: bi gau, larunbateko afaria eta bi gosari. Lo egiteko zakua eraman behar da.

## Gipuzkoako 56ko kintoak

Urtero bezela 69 urte betetzen dituztenek festa ospatuko dute, apirilaren 4an, Erramu Egunean. Eguerdiko ordu batean, meza izango dute hildako kintoen alde Loiolako Basilikan. Bertan, Azpillaga eta Intxausti bertsolariek hartuko dute parte, 14:30ean bazkaria Kiruri (Loyola) jatetxean. Izen ematea honako telefonoan: 943 191238 (Iñaki Elosua).

*1904ko martxoaren 14ean ireld zituen lehen aldiz begiak Jose Valentin Arriolak Mendaroko Saatzu baserrian. XX.mendea ia osorik bizi izan du mendarotarrak eta dagoeneko 2 seme-alaba eta 5 biloba izateaz gain, 3 birbiloba ere baditu. Martxoaren 14an 100 urte bete zituen Mendaroko aitonak eta bere etxera bere familiakideez aparte Mendaroko alkatea den Esti Gonzalez, Rosa Urain zinegoizia eta Diputazioko Femando Etxeberria hurbildu ziren bera zoriontzera. Aipatzekoa da ehungarren urteurrena ospaizen dutenen %80 a emakumeak direla.*
*Ez dugu uste belarritik 100 aldlz tira egingo ziotenik, baina ziur ospakizun polita izango zela. Besfalde, Lagun Befikoak egolizan ere, omenaldia eskaini zioten. Bertan plaka bat jaso zuen oroigarri gisa bazkideen eta zuzendaritzaren eskutik. Valentinek esker onez eta hunkiturik jaso zuen herriak eskainitako omenaldia. Zorlonak Valentinl*

# JOSE VALENTIN ARRIC

# "Ixa 92 urterarte eta oin ere





Argazkia: Egaiut

**Txikitan 100 urte beteko zenituela uste al zenuen?**
Esperantzia beti euki det aspaldixan, beti izan naiz urtiak baino gaztio itxuraz.

**Mendaron bizi izan al zara beti?**
Bai! Mendaron jaio eta Mendaron bizi, ez dao Mendaro bezalakoild

**Aldaketa handia ikusiko zenuen Mendaron bertan 100 urte hauetan?**
Asko. Zubixak, kamifluak, ikaragarri aldatu da hau.

**Zein da 100 urte bizitzeko sekretua?**
Sekretua? Ba zintzo ibiltzia! 100 urte baino gehixo bizi bihar da! Taberna naukanez juergia etxian ein bihar gendun baina orokorrian asko zaindu izan naiz beti.

**100 urte hauetan hamaika lanbidetan ibiliko zinen, ezta?**
Taberna euki det 19 urtetan, Emeterio taberna, Azpilgoetan. Pelukero ere izan nintzan urte hoietan. Gerra aurretik emakumiei iiia mozten nien, Elgoibartik etortzen zian nereana, Eibarrera ten nintzan zapatutan emakumiei ilia mozten ikastera. Gero, abarketak iten ere aritu nintzan, Azkoitin ikasi nun. Ikatza iten eta saltzen ere aritu nintzan. Ofizio asko izan ditut!

## **LA,** 100 urteko mendaroarra

# euk° nual idixeko karneta, marajauko naban nik kotxia"


Argazkia: Egaña

**Gerra garaiaz zein oroitzapen daukazu?**
Gerriak ez harrapatziarren urtebetez Eibarren egon nintzan lanian. Gogorra izan zan baina nik ez det gosia ezagutu zorionez.

## "Tabernia naukanez juergia etxian ein bihar gendun baina orokorrian asko zaindu izan naiz

**Eta zein afizio dituzu?**
Pelota asko gustatzen zait eta telebistan pelota partiduak asko ikusten ditut, hemen Mendaron pelotan ibilitakua naiz beste tabernari batzuekin

**Kanpoan asko ibitakoa al zara?**
Ez, ez naiz ia Mendarotik atera. "Viaje de nobios"en Madrilea jun ginan emaztia eta biok, eta zahartzaruan Almeriara imsersoakin, Valentziara ere jun nintzan. Ta holaxe, ez naiz ertetzekua izan. Oin dare juergistak!

**3 birbiloba dituzula entzun dut**
Bai, niri aitxitxe deitzen diate eta nire semeari aitxitxa, hola distingitzen gaituzte. Ohera laguntzen diate siestara.

**Oso osasuntsua izan al zara beti?**
Bizi guztian zaindu izan naiz, oso gutxi erre det, alkohola ere neurrixan, izerditzen banitzan ere sikau aguro, aldatu... oin ere berdin! Izerdixa baldin badakat buruko sikadoriakin ondo sikatzen naiz. Jateko orduan ere gutxi jaten det, baino askotan, hori da nere sekretua.

**91 urtera arte kotxeko karneta izan duzu...**
Bai, ixa 92 urtera arte, oin ere manejauko naban nik kotxia! Kotxeko karneta 64 urtekin atera nuan, aurrez motorrana nakan. Seincientos bat erosi nuan eta beranduo Opel Corsa bat.

**Nolakoa izan zan 100. urtebetetzeko ospakizuna?**
Goizeko 11:00etan etorri zian hona, Mendaroko alkatesia eta Diputazioko Fernando Etxeberria, beste batzuren artian. Bastoi bat oparitu zian alkatesak, zilarrezko manguakin. Diputaziokoak plaka eta Rosa Urain zinegotziak lora sorta bat ere eman zidaten. Gero Garagartzako rnesetara jun ginan 12;00etan eta koruak zorionak abestu zuen, oso politxa izna zan. Gero botatzera jun ginan eta azkenian bazkaltzera.

# 7etuttu zahana



labete honetako erretratu zaharra Charo Eizagirrek lagatakoa da. Duela 44 urte inguru, hau da, 1960. urte inguruan ateratakoa dela azaldu digu. Aste Santua gainean dugunez argitaratzeko garai aproposa iruditu zaigu, Aste santuko prozesio bat ikus baitezakegu bertan. Argazkian agertzen direnak Garagartzako elizatik ateratzen ari dira Kristoren gorputza beraiekin daramatela, baina apaiz jantzita daudenak ez dira apaizak mendaroarrak baizik. Ikus daitekeenez beste garrantzi bat zuten behinola horrelako ospakizun eta ekintzek.



## *ESKERTZA*

*2004ko martxoaren 20an, 80 urte zituela hil zen,*
*RUFINO ANSOLA AGUIRREGOMEZCORTAren emaztea,*
*seme-alabak eta gainerako sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu*
*jasotako doluminak. Bere aldeko MEZA izango da*
*Garagartzako Parrokian igandean, hilak 28, eguerdiko 12:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# infor mazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 26 | Zabaleta | Zabaleta |
| 27 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 28 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 29 | Ibañez | Ibariez |
| 30 | Bidasolo | Bidasolo |
| 31 | Etxeberria (Sanla Ana kalean) | Etxeberria |
| 1 | Fernandez | Fernandez |
| 2 | Yudego | Yudego |

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparaniza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

28 igandea Eizagirre

## EuskoTren

DONOSTLA-BILBO

Egunero

| | | |
|---|---|---|
| Donostia SaLARA | 5.15 06.45... | 20.45 |
| Elgoihar | 07.02 08.02.. | 22.02 |

* ja[egunetan 7.45can hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50 .. 21.50

## Eusko

A1 iTOBI'S AK

BILBO-DONOSTIA

Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bilbo | 06:00 | 7.00... | 20.00 |
| Elgoibar | 07.23 | 08.23... | 21.23 |

* jidegunelm.8.00etan hasiko dira

ELGOU3AR-MENDARO

Astegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgothar | 07.25 | 08.25 | 10.25... | 21.25 |

Jaiegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgoibar | 08.25 | 09.25 | 10.25... | 21.25 |

## ELGOIBAR

SIGMA — 11) ARRIAG0.

| SIGMA - | ARRIAGA | ARRIAGA - | sigmAT |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa ............................ 943 03 26 10
Planning-a ............................... 943 74 29 50
Alkoholiko Anonirnoak ..................943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) ...................... 943 46 46 22
Gurutze Gorria ......................... 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea...................943 03 28 00
Odol Emaileak ......................... 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. ....................... 943 74 04 42
PESA (Eibar) ............................ 902 10 12 10
Taxi geltokia ............................ 943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua........................943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua....................943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ....................... 943 74 21 58
Mendaroko Udala ........................943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ......................943 74 10 08
Udaletxea ................................. 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............................ 943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ........................943 74 16 26
Kiroldegia ................................. 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ..................... 943 74 30 88
Liburutegia................................ 943 74 35 25
Nlusika Eskola ...........................943 74 21 45
Mintxeta .................................. 943 74 43 15
Parrokia ................................... 943 74 08 42
Postetxea ................................. 943 74 15 47
Gaztetxea ................................. 943 74 35 72
Gazte Informazioa .....................943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza ....................943 74 02 96
Zaharren Biltokia .......................943 74 05 26
Eguneko Zentroa .......................943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola ..............................943 74 21 41
HHI (EPA) ................................943 74 08 80
Herri Eskola .............................943 74 08 79
I.M.H.......................................943 74 41 32
I nsfitutua
Arreiturre ................................. 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ........................943 74 80 19
I kastola ................................... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.......................... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN .................................. 943 74 41 12
El Diario Vasco .........................943 74 40 73
El Correo Español .....................943 74 10 82
Zazpiki irratia ........................... 943 74 34 74
Egunkaria .................................943 30 02 28
Gara ....................................... 943 31 69 99

# PRESSTO Tindategia



Lurdes Arruti

**"Gaur egun jendeak erraz erosten du arropa eta ez da asko tindatzen"**

Tindategia izena bat al dator egun egiten duzuen lanarekin?
Ez guztiz. Gaur egun gehiago egiten dira garbiketa eta lixaketak. Tindatzera jende gutxiago etortzen da.

Zer nolako zerbitzua eskaintzen duzue?
Garbiketak lehorrean nahiz uretan, lixaketak, tindaketak eta konponketak ere egiten ditugu, barrenak hartu, kremailerak aldatu...

Arropak tindatzea zaharkituta geratu al da?
Pixkat bai. Tarteka jendea etortzen da prakak edo txaketak tindatzeko, baina, gaur egun jendeak erraz erosten du arropa eta ez da asko tindatzen.

Urteko zein garaitan izaten duzue lan gehien?
Udaberri aldetik irailera batez ere. Orain jaunartze eta ezkontzen garaia da eta bestetik, urte sasoi honetan, jendiak mantak, edredoiak, kortinak eta alfonbrak garbitzera ekartzen ditu.

Bezeroak exigenteak al dira?
Denetik dago, baina iruditzen zait zerbitzu ona eskaintzen dugula, eta orohar jendea konforme geratzen da.

Anekdotarik?
Aurreko baten txaketa zuri bat ekarri zuten gorriz tindatzeko eta botoiak ere gorriz tindatuta geratu ziren. Txaketaren jabea gustura geratu zen, botoi gorririk josi beharrik ez zuelako.

Zein tejidu edo arropa motak ematen ditu lanik handienak?
Sintetikoek. Seda nahiko delikatua da eta harritxoak dauzkatenek ere lana ematen dute. Troteroena, berriz, haria da

Zein ohial dira mantxak kentzeko zailenak?
Kotoia eta linoa,

Elgoibarko zein txokok behar du konponketa bat?
Aparkaleku gehiago behar dira.

Baporezko plantxa ala tradizionala nahiago?
Baporezkoa, dudarik gabe.

Iragarkietan azaltzen diren produktu miragarriak henetakoak al dira?
Ez, ez dago mirariririk.

Garbiketaren esparruan izan den asntakuntzarik handiena?
Ez nuke bat esaten jakingo. Baina, orohar produktu asko daude, iehorrerako disolbenteak esaterako. Makinak ere bai.

Iraileko eta Urtarrileko aldapak lixatzea posible al da?
Hori norberak ikusten du.

Esther Gurrutxago

Ag
Arotz tahair
Lurrak
Ateak
Lehioak
Armairu empotratuak
Azibar Iraolagoitia
Arno bide, 7 - Telf.: 636 49 74 85
20850 MENDARO

Familia, bikote eta banakako terapia
OREKA PSIKOLOGIA
▶ Harreman arazoak:
- Famifia
- Bikotea
- Kkieak
/ Jarrera arazoak
▶ Porrot eskolarra
▶ Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...
Edificio Aurrera Urtzaile kalea, 1 - EMAR
Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 61 5 70 37 25

# "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen III. Lehiaketa asteburu honetan izango da

## Hamazazpi herritako 34 talde instrumentalek hartuko dute parte

Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta, "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen hirugarren edizioaz gozatzeko aukera izango dugu aurten martxoaren 27an eta 28an. Euskal Herri guztitik etorritako 34 talde instrumental entzuteko aukera izango dute musika eskolako auditoriora hurbiitzen direnek. Denera, 17 herri desberdinetako musikariak bilduko dira Elgoibarren hogei musika eskola ezberdin ordezkatuz, hau da, 226 ikasle denera. Iaz 149 musika ikaslek hartu zuten parte lehiaketan. Elgoibarko talde instrumental bat ere izango da tartean, "Txipil Taldea" izenekoa, hain zuzen ere. Txapelketak hiru maila izango ditu: Oinarrizko Maila I (12 urtera bitartekoa), Oinarrizko Maila II (16 urtera bitartekoa) eta Maila Ertaina (20 urtera bitartekoa).




**Epaimahaia**

Honakoak izango dira epaimahaia osatuko duten kideak: Monica Redondo, bibolina (Euskadiko Orkestrako kolaboratzailea eta "Usandizaga Laukote"ko partaidea). Jon Lizaso, tronpa (Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioko irakaslea eta "Quinteto Pablo Sorozabal"eko partaidea). Patricio Goialde, gitarra elektrikoa, harmonia, jazz-a, konponketak eta musikaren historiako irakaslea. (Gaur egun Musikeneko irakaslea Jazz Musikaren Historia arloan) eta Mari Tose Cano, pianoa (Pasaia Musikaleko irakaslea eta Diario Vasco egunkariko musika kritikaria). Ordutegiari dagokionez, goizeko saioak 10:00etan hasiko dira eta 16:30ean arratsaldekoak.

# "JiM, altxor uhartear txotxongilo emanaldia domeka honetan

Gorakada Teatro taldeak "Jim, altxor uhartean" haurrentzako txotxongilo ikuskizuna eskainiko du domeka honetan, martxoaren 28an, Herriko Antzokian. Abenturazko eleberri ezagunenetako bat abiapuntu hartuta, Robert L. Stevensonen "Altxorraren Uhartea" alegia, Gorakada Teatrok egokitzapen berri bati ekin dio Jokin Oregiren zuzendaritza eta gidoigintza lanen kolaborazioarekin. Hain zuzen ere, Jokin Oregi soraluzetarrak zuzendari onenaren saria jaso du Gijongo Feten Europako haurrentzako azoka prestigiotsuan. Bestalde, Harkaitz Cano idazlearen luxuzko kolaborazioa izan dute idatzi literarioago bat ahalbidetuz. Domeka honetan, martxoaren 28an, ikusi ahal izango da ikuskizuna Herriko Antzokian 16:30ean.



# Amaia Astigarraga txapeldun Beasaingo Soinu Zahar Txapelketan

Gipuzkoako Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketaren laugarren jardunaldia ospatu zen pasa den martxoaren 20an eta 2 lean Beasainen. Bertan, lau dantzari elgoibartarrek hartu zuten parte eta gaztetxoenek lortu zituzten emaitzarik onenak. A sailean, hau da, 7 eta 11 urte bitarteko dantzarien mailan, Amaia Astigarraga izan zen txapelduna. Amaiarentzat jarraian lortu duen bigarren garaipena izan da, Elgoibarko Soinu Zahar Txapelketan ere berak jantzi baitzuen txapela martxo hasieran. Maila berean Ainhoa Agirre elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan. Domekan B sailekoen (11-15 urte) txanda izan zen. Maitane Moreda herritarra hirugarren postuan sailkatu zen eta Miren Ramos, berriz, 15. postuan. Hurrengo jardunaldia Lezon jokatuko da apirilaren 24an. Bertan erabakiko da nor arituko den Legazpian izango den final handian.



*Ainhaa Agirre ezkerrean eta Amaia Astigarraga.*

# Xabier Loiolak eta Unai loiolak jantzi dute txapela San Lorentzoko Esku Pilota Txapelketan

## Fernando Loiola eta Osoro izan ziren bigarren mailako txapeldunak

San Jose Egunean, martxoaren 19an, jokatu ziten San Lorentzoko Esku Pilota Txapelketaren finalak Sallobente-Ermuaraneko frontoian. Sallobente Elkarteak Artazo pilotaria zenaren omenez antolatzen duen txapelketan 12 bikote aritu dira aurten nor baino nor eta 4 bikoterik onenak iritsi ziren finalera. Bigarren mailako finalean, Fernando Loiola eta Osoro, Angel Loiolaren eta Germanen aurka aritu ziren. Lehenengoek jantzi zuten txapela partidua 22 eta 19 irabazi ostean. Osoro atzelaria aukeratu zuten finaleko jokalaririk onena. Lehen mailako finalari dagokionez, Xabier Loiolak pilotan ere bolotan bezain ondo egiten duela erakutsi zuen. Izan ere, aurreko astean San Pedroko Bolo Txapelketan irabazle suertatu zen sanmigeldarra. Oraingoan Unai Loiolarekin bikote eginez lortu zuen San Lorentzoko pilota txapelketa irabaztea. 22 eta 12 irabazi zieten Enekok eta Ion Idoetak osatutako bikoteari. Unai Loiola aukeratu zuten finaleko jokalaririk baliotsuena. Partiduak jokatu ostean, eta urteroko ohiturari jarraituz, Sallobente elkartean egin zuten arkume janarekin eman zioten amaiera txapelketari.



*Irabazleak eta finalistak garaikurrekin.*



*Bigarren mailako finaleko une bat.*

ILO IDA K C) la QALEiCt.lEN ESKAINTZA

ji .t,....‹..,,,.›,¹ 1,
A dIALD TALLeA

UDALEKU IREKIAK
R9dbar
Ekainaren 28 tik uztailaren 23ra
HH (3-5 urte) eta LH 1-2
9:30 - 12:30

UDALEKU ITXIAK

Uztailaren 5etik l0era
**LH** 1-2-3

Bernedo
araba)
Uztailaren lltik 19ra
LH 4-5

17.4
arroa)
Uztailaren 2tik llra
**LH 6 eta DBH 1-2**

EAUT
AISIALDI TALDEA

UDALEKU ITXIAK

ofza
*Osia arroa)*
**Uztailaren 2tik llra**
**LLH 6 eta DBJH 1-2**

Adoaia
ara.1,0,)
Uztailaren 2tik 14ra
**DBH 3-4**

**Izen-emate epea apirilean irekiko da.**

**Informazioa gehiago:** Elgaibarko izarra Kultur Elkaitea (Ubitarte 4, behea)
Tel.: 943 74 16 26 lNerea Oriederra) • E-ix)sla: nerea@elgoibarkoizarra.com

## Sanmigeldarrak nagusi Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapeiketaren lehen jardunaldian

iastia auzoko bolariak izan ziren jaun eta ..M.jabe Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren lehen jardunaldian. Izan ere, lehen sei sailkatuetatik 5, irabazlea barne, auzo horretako bolariak ziren. ldotorbe auzoko bolatokian jokatu zen lehen jardunaldia pasa den martxoaren 13an, eta Soraluze, Eibar, Elgeta, Bergara, Azkoitia eta Elgoibarko 65 bolarik hartu zuten parte bertan. Xabier Loiola sanmigeldarra izan zen irabazlea bost txirlo bota ostean. Mikel Urkia eibartarra sailkatu zen bigarren postuan bost txirlorekin hau ere. Hortik atzerakoak, sanmigeldarrak guztiak. Mikel Egia izan zen hirugarren 5 txirlorekin. Anjel Ibarluzea eta Unai Loiola laugarren eta bosgarren postuetan sailkatu ziren hurrenez hurren, biak ere lau txirlo bota ostean. Azkenik,



Inaxio Kortaberria sailkatu zen seigarren postuan 3 txirlorekin. Hurrengo jaurtialdia Soraluzen dagoen Txurrukako bolatokian izango da zapatu honetan, martxoaren 27an. Hirugarren jarduna1dia, berriz, Elgoibarko Aiastian izango da apirilaren 3an.

## Markel Bergara Realaren deialdian sartu zen lehen aldiz Bartzelonaren aurkako partiduan

Markel Bergara elgoibartarra zubietatik atera daitekeen hurrengo harrribitxia bihurtzekotan dago. Izan ere, 17 urteko jokalari gaztea Raynald Denoueix Realeko entrenatzaile frantziarraren deialdian sartu zen estrainekoz pasa den martxoaren 21ean Bartzelonaren aurka Camp Noun jokatzeko. Ez zuen partidua jokatzeko aukerarik izan, baina aurrerapauso nabarmena egin du bere futbol karreran. 18 urtez azpiko



Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketan parte hartzekotan zebilela jaso zuen albiste pozgarria elgoibartarrak eta debuta egin izan balu Realean jokatzen hasi den bigarren jokalaririk gazteena izango litzatekeen, Joseba Etxeberria herrikidearen atzetik. Honek 17 urte eta lau hilabete zituela jokatu zuen lehen aldiz talde nagusiarekin. Espero dugu berri hori lehenbailehen emateko aukera izatea orriotan.

## Anton Segundok ez zuen zorterik izan Espainiako Kros Txapelketan

Eskolarteko Espainiako Kros Txapelketan hartu zuen parte pasa den asteburuan Anton Segundo korrikalari elgoibartarrak Caceresen. Euskadiko Kros Txapelketetan lortutako seigarren postuari esker Iortu zuen bertan parte hartzeko txartela, baina ez zuen zorte gehiegirik izan eta sailkapen nagusiko 68. postuan amaitu zuen infantil mailako lasterketa. Atleta gipuzkoarrak ez ziren oso fin aritu oro har eta seigarren postu bat izan zen gure probintziako atleta batek lortutako emaitzarik onena. Antonentzat esperientzia aberasgarria izan da honakoa, bere adineko estatuko atleta onenekin aritzeko aukera izatea ez baita marka makala.

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 3 -S. Tomas Lizeoa **1 (Prel.)**

Elgoibar **2**- Tolosaldea **2 (1. erreg.)**

Elgoibar 5 - Zarautz 0 **(Int.)**

Elgoibar **6** Beti Ona **D (Kad.)**

ilintxa 2 -Elgoibar **2 (Neskak)**

Hondarribia **2** - Elgoibar **4 (Jub.)**

### Esku pilota

**Udaberri Saria**

**Lagunak B 22 Murumend110 (Nag.)**

**Lagunak 14 - Murumendi 22 (Kad.)**

Ariorga **22** – Lagunak **9 (Kad.)**

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. **24** Aloria Mendi **29 (Kad. nesk.)**

Tecnifuelle Elg. **25** Axis-UPV **31 (Sen mut.)**

Pagoaga Eig. 25- Basauri **19 (Kad. nesk.)**

Bidasoa **25 -Tecnomeca** Elg. **9 (Kad. mut.)**

Bidasoa 37 -Pneumax **Elg. 11 (Jub. mut.)**

Sestao **26** -Tecnifuelle Elg. **25 (Sen. mut.)**

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 27**

**11:30** Elgoibar-Zumaiako (Neskak F-8)

15:30 Elgoibar- Ordizia (Jub.)

Domekia, 28

10:30 Elgoibar- Real Union (Aleb.)

12:00 Elgoibar - Salvatierra (Neskak)

### Eskubaloia, Kiroldeglan

Barixakua, **26**

**19:30** Cometel Elg. - Basauri **(Jub. Nesk.)**

**Zapatua, 27**

**17:45** Tecnomeca Elg. Puipo (Kad. mut.)

**19:15** Pneumax Elg. -Pulpo **(Jub. mut.)**

### Areto futbola, Kiroldegian

**Zapatua, 27**

**12:45** Lojantzi Rotulos Martin (Jub.)

**16:00** Kenci Eig. - Indautxu (nazional **B)**

**Domekia, 28**

**11:00** Magefesa - Ribera Navarra **(Jub.)**

**12:30** Lanbroa - Larramendi (1. **matla)**

# merkatu txikia

2004-111-26

## Lana

ESKAERA

• Emakumea garbiketa lanak egin, eta umeak zaintzeko prest. **943 74 22 01/652 71 59 08**

• Emakumea adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. .ar **660 69 53 03**

• Neska umeak zaintzeko prest. **v 669 22 35 27**

• Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. v **943 74 30 56**

**ESKAINIZA**

♦ Emakumea behar da umea Ikasblara eraman eta etxeko lanak egiteko. 3 ordu goizez. **v 653 71 33 75**

• Asteburuetarako komarera behar da. esperientziadurta, **v 943 12 12 62**

• Bulegorako neska behar da. **er 902 10 32 87**

• Salento pizzeriarako kamareroa behar da. **tr 943 74 01 96**

## Etxebizitzak

• Pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela, komuna. Altzariekin. Berritua. Prezio interesgarria v 661 42 60 77

• Soraluzen etxea eta garajea salgai. Euren artean konekfatuta. **v 656 78 07 48**

• Pisua hartuko genuke alokairuan. **v 652 73 73 91**

• Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Igerilekua eta aparkalekuarekin. **✓ 653 73 34 57**

• Pisua salgai erdigunean. 8011², berritua, altzariekin, 3 logela, dena kanpora begira. **zr 655 70 70 33**

Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Eraikuntza berria, Bateles hondartza ondoan. Konpletoa. **tr 680 44 26 68**

♦ Apartamentua alokatzen da Saloun. Hondartzako lehen ilaran. Novelty eraikuntza. Konpletoa, aire egokitua, igerilekua eta garajea. **tr 943 81 42 38**

• Pisua salgai Santa Klaran. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. zr **943 53 17 43**

• Arregitorren etxea solgai. Berritua, 3 logela, egongela, 2 komun, ganbara eta garajea. Eguzkifsua.
• **679 83 04 38**

•Pisua alokatzen da herriko erdigunean. **v 943 20 30 83**

• Pisua hartuko nuke abkairuan Elgoibarren. **v 943 74 34 14 (Lorea)**

• Pisua salgai Santa Ana kalean, Berricitzariekin. v **625 70 94 44/ 625 70 94 45)**


**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 1 3:30a da.


## Salerosketak

• Serieko Ilantak salgai neumatikoekin. Peugeat 206 GTI aufoarenak. Hiru betez bakarrik erabiliak. **tr 696 89 60 88**

• Ford K autoa salgai. 4 urte. 25.000 km. Aire egokitua, leiho igogailu elebrikoak. Oso egoera onean. **606 44 03 27**

• Scooter 125cc. motorra salgai. 1050 euro. Oso berria. **tr 639 180 184**

♦ Bizikleta zikloestatikoa. Kilometroak, kaloriak... neurizen ditu. 120 euro. **✓ 943 53 13 67**

## Bestelakoak

• Pedro Muguruza kalean, perikito bat agertu zaigu balkoian. Horia eta berdea. **✓ 943 74 39 73**

• Caritasek hozkailua, garbigailua, ohe handi bat eta bi txiki eskaintzen dilu. **Buianozko** berogailua hartuko luke. 5+ **943 74 15 05**

• Kartera galdu nuen astelehenean, hilaren 22an, San Bartolome kalean, Pol-Pol eta Eroski bidaiak artean. **ir 943 74 18 76**

♦ Euskal Artzai txakurkumea oparilzen da. Aita euskal artzai kakurra eta ama perrigalga efa artzai demaniarra. **v 678300411**

• Hilaren 6an, eguerdi aldean urrezko belarritako bat galdu nuen Ubitarte ela Plaza Handia bitartean. Borobila da. **v 943 74 14 70**

## Lokalak

• San Bartolome kalean lokal komertziala alokatzen da. Ez du obra beharrik. Prezio onean. v **943 58 40 39 (gauez deilu)**

## Garajeak

• Garajea alokatzen da Bemardo Ezenarro kalean, Eroski azpian. +1 **943 74 27 24 (arratsaldez)**

Santa Ana 2an garajea alokatzen da. **v 615 78 78 57**

## Partikularrak

+ Batxilergoko bigarren mailako latin klasek jasoko nituzke. **iz 943 74 45 65/699 70 82 88**


**ELGOIBAR**
(Parrokiaren ondoan)
**Eixebizitza: 131,09 m²**
Terrazak: 22,71 rn'
Igogailua- Berokuntza sistema
Hormigodroa — Dena kanpoaldera
**PREZIO ONA**
**943 74 44 67 607 74 12 38**

# agendo

2004-111-26

## 26 BARIXAKUA

17:30 "ICIRIBILKA PROGRAMAREIV AURKEZPENA
Norentzat: 3-8 urteko haurrak eta hauen gurasoak
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea
22:15 RUPER ORDORIKAREN KONTZERTUA
"Kantuok jartzen ditut" diskoaren aurkezpena
Herriko Antzokian

## 27 ZAPATUA

10:00 eta 16:30 "ELGOIBARK0 HERRIA" INSTRUMENTU TALDEEN LEHIAKETA
I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan

## 28 DOMEKIA

10:00 eta 16:30 "ELGOIBARK0 HERRIA" INSTRUMENTU TALDEEN LEHIAKETA
I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan
16:00 XX1V. ELGOIBARKO HIRIA TXIRRINDULARI SARIA
Irteera: Plaza Handitik
Helmuga: Santa Klaran
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea
16:30 TXOTXONGILO IKUSKIZUNA
"Jim. Altxor ujartean"
Taldea: gorakada Teatroa
Herriko Antzokian

## 30 MARTITZENA

12:30 IMH **SARIEN BANAKETA EKITALDIA**
IMHko areto nagusian
20:00 **TRINITATEETAKO NAGUSSIEN DANBORRADAN PARTE HARTZEKO** BILERA
Gabi tabernako terrazan (euria egingo balu, Kultur Etxeko hitzaldi gelan)

## 1 EGUENA

14:15 IKASTOLAKO DBHKO IKASLEEN JAIALDIA
Haur txikientzat
19:00 IKASTOLAKO DBHKO IKASLEEN JAIALDIA
Gurasoentzat
Herriko Antzokian
18:30 KONFERENTZIA-ELKARRIZKETA
Gaia: Gazteen sexualitatea
Hizlariak: "Lahiasex" taldeko kideak
Elgoibarko Institutuko areto nagusian (Mekanika)
Antolatzailea: Elgoibar Bigarren Hezkuntzako Institutuko Guraso Elkartea eta Zuzendaritza

## 2 BARIXAKUA

22:15 ELGOIBAR PERKUSIO TALDEAREN AURKEZPEN KONTZERTUA
Herriko Antzokian

## BILERAK

**Trinitateetako Nagusien Danborrada**

Martxoaren 30ean, asteartean, aurtengo danborradan parte hartu nahi dutenek bilera izango dute Gabi tabernako terrazan (euria egingo balu Kultur Etxeko hitzaldi gelan) arratsaldeko 20:00etan. Herritar guztiak aminatu nahi dituzte antolatzaileek ekainaren 5ean ospatuko den danborradan parte har dezaten.

## KIROLA

**Elgoibarko Hiria txirrindulari lasterketa**

Domeka honetan, martxoaren 28an, ospatuko da jubenil mailako XXIV. Elgoibarko Hiria Txirrindulari Saria. Arratsaldeko 16:00etan izango da irteera ordua, eta txirrindulariak Plaza Handitik abiatuko dira. Inguruko herrietan zehar 80 kilometro egin ostean, Santa Klaran kokaturiko helmugan arnaituko da proba.

ZINE kluba



## "Las invasiones barbaras"

**Zuzendaria: Denys Arcand.**
**Antzezleak: Remy Girard, Spephane Rousseau, Marina Hands.**

Remy dibortziatuta eta ospitalean gaixo dagoen 50 urtetik gorako gizonezkoa da. Louise bere emazte ohiak Londresen bizi den Sebastian, bien semeari, deitu dio. Sebastienek asko pentsako du aitaren albora Montrealera joateko erabakia hartu aurretik, bien artean esatekoak aspaldi amaitu baitziren. Behin erabakia hartuta, ordea, zerua eta lurra mugituko ditu aitaren gaixotasuna eramangarriagoa izan dadin. Aitaren iraganeko lagunak, maitale ohiak eta familiakoak batuko ditu.

**2004-III-26**

## KONFERENTZIAK

**Gazteen sexualitatea**

Seme-alaba eta ikasleen heziketa hobetzeko helburuarekin, Elgoibarko Institutuko Guraso Elkarteak eta Zuzendaritzak datorren apirilaren lean, arratsaldeko 18:30ean, Institutuko areto nagusian (Mekanikan) izango den konferentzia-elkarrizketara gonbidatu nahi ditu herritarrak. Bertan, **DBH** 2. eta 4. mailan, Batxilergo 1. mailan eta Elektromekanika, Karrozeria, Erizantza eta Merkataritzako 1. mailan garatu den sexu heziketa jardunaldiari buruzko azterketa eta hausnarketa interesgarriak izango dira gurasoentzat. Gazteen sexualitatea izango da gai nagusia eta sexu hezkuntzan espezialistak diren "Lahiasex" taldeko kideak izango dira hizlariak.

## OSPAKIZUNAK

**IMH Sariak**

Datorren astean, martxoaren 30ean, eguerdiko 1230ean, sari banaketa ekitaldia izango da IMHko Areto Nagusian. Bertan IMHko Ikasle Ohi Aipagarrienari oroigarria emango zaio eta baita 2003ko IMHko ikasle aipagarrienari eta 2003ko Fabrikazio Arloko ikasle aipagarrienari ere. Bertara, ikasle, enpresa eta gurasoak daude gonbidatuta.

## IHASTAROAK

**Moztu eta josi modu errezean**

Haizea Emakume TaIdeak moztu eta josi modu errezean izeneko ikastaroa eskainiko du apirilaren 20tik ekainaren 17ra bitartean. Astearteetan eta ostegunetan izango dira klaseak 15:00etatik 16:30era. Hortaz, 26 ordu izango dira guztira. Izaskun Estibaritz izango da irakaslea eta gehienez 15 lagun onartuko dira. Besteak beste, arropa birziklatzen, neurriak hartzen, norbere arropak konpontzen, koloreak nola uztartu, nola baliatu moda aldizkarietako idoiez, eta abar. irakatsiko da. Haizeako bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroan parte hartzeko eta 40 euro bazkide ez direnek. Izena emateko edota informazio gehiago nahi izanez gero, Pitxintxura joan.

**Administraritza ikastaroa**

Elgoinbar Bigarren Hezkuntzako Institutuak administrari ikastaroa eskainiko du martxotik azarora bitartean. Besteak beste, kontabilitatea, nominak eta fakturazio informatikoa, mekanografia, informatika eta bulegoko praktikak irakatsiko dira. Doanekoa izango da INEMek %100ean diruz lagundutakoa baita. Ordutegia, 14:00etatik 20:00etara izango da. Interesatuek 943 74 80 19 telefonora dei egin dezakete eta Susanarengatik galdetu.

## zine

**KA RTE LDEGIA**

**ELGOIBAR,**
**Herriko Antzokian**
**"Casa de arena y niebla"**
27, zapatua: 19:30-22:15
28, domekia: 19:30-22:15
29, astelehena: 22:15
**"Las invasiones barbaras" (Z.K.)**
1, osteguna: 22:15

**EIBAR, Unzaga**
**"Peter Pan"**
26. bari akna:
27. ...111,duzi: 17:00-19:30-22:30
2K, 17:00-10:311-2 1:30
21. 19;3(1-22:15
martittena: 19:30-'2:15
31. egmilitenit: 10;30-22:15

**EIBAR, Rialto**
2h. hari \aisna: 1 1):31)-'":15
17:00-1 9:30-22:15
klinnek 17:00-19:30-":15
29. :t',telehena: 19:30- 3 ).15
30, martit/enit. 19:30
.31 e2uaztetili.: 19:311

BARRENek ez du geria litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "Casa de arena y niehla"

**Zuzendaria: Vadim Perelman.**
**Antzezleak: Jennifer Connelly, Ben Kingsley, Ron Eldard.**

Etxe bat lortzemen edozer egiteko prest dauden bi pertsonaia oso desberdinen istorioa kontatzen digu filmak. Kathy Nicolorentzat azken itxaropen printza da Kalifornia iparraldean dagoen bungalow-a, ia bizia galdu arazi zion droga adizio larritik atera berri baita. Massoud Amir Behranirentzat, berriz, amets amerikarra lortzeko modua da etxe bera. Duela urte batzuk familia guztiarekin jaioterria (Iran) laga eta han eta hemen gogor lan egin ostean ameztutako diru guztia etxea erosten xahutzeko prest dago.

N
21



Aste honetako erretratu zaharra Begoña Aranberrik lagatakoa da. 1947. urtean Altzolan ateratako argazkia da. Gaur egun errepide Nazionala pasatzen den bidean aterata dago erretratua. Garai hartan ez zen kotxerik pasatzen, eta Altzolako umeak bertan ibiltzen ziren futbolean jokatzen. Gogora ditzagun zein diren erretratuan ageri zaizkigun gaztetxo dotore hauek:

Goiko ilaran, zutik, ezkerretik eskumara: Jose Luis Arozena, Ecluardo Irusta (t), Jose Mari Landa, Teodoro Landa (t), Ion Etxabe eta Antonio Landa.

Beheko ilaran, makurtuta, ezkerretik eskumara: Frantzisko Oñederra, Jose Mari Etxabe (t), Victor Arrizabalaga, Pedro Mari Goikoetxea, Jose Lariz (t) eta Txomin Arozena.



*ESKERTZA*

*2004ko martmaren 23an, 72 urte zituela hil zen*
*PEDRO IZAGIRRE BILBAO, (Miren Alberdi Gabilondoren alarguna).*
*Bere seme-alabak, bilobak eta gainerako sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*
*Igandean, hilak 28, bere aldeko MEZA izango da*
*Sallobenteko elizan oizeko 10:30ean.*



# BASKO RENT

## GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKA1RUA

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GARBI eta PREST!




## ESKAINTZA BEREZIA:

PNEUMATIKOAK 4 X 3- 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU

1

ESKUZ EGINIKO GARBIKETA

CP

igur

GARBIKETA AUTOMATI KO PUBLIKOA







### HORREZ GAIN:

OfloarEn Edo filtroEn aldakEta
PnEumatikoEn aztErkEta Eta aldakEta
BalaztEn EtE EsEkidurarEn aztErkEta
MantEnimEndu orokorra

## SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE .1"11

**7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar**

**izr 902 103 287**

MICHELIN rtrestone GOOD,VEAR

Elgoibarko Institutua
San Roke, 1 Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

AENOR ER · IQNet ISO 9001

# ELGOIBIIRRO BH 111STITUTUII
# 2004/05 ilifiSTURTEfi



Azken 25 urteetan batxikerra 3000 ikasle inguruk gurekin gainditu dute.

Azken 10 urteetan selektibitatea gure ikasleen %97k baino gehiagok gainditu du.

Bailara guztiko 550 ikasle ditugu : aukera ederra inguruko gazteak ezagutzeko eta harrernan berriak egiteko.

Batxilerretako ibilbide guztiak garatzeko norberaren interesen arabera ikasbidea eratuz.
**(Zlentifiko-teknikoa, Osasuna, Teknologikoa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak)**

- **Marixoaren 31n, arratsaldeko 4:30etafik aurrera, DBH 4. mailako ikasleok Institutura** etorri ahal izango duzue, azpiegiturak ikusi, orientazio zerbitzuaren aholkuak jaso eta, zalantzak, bertatik bertara, argitzera.
- **Zatozte gurasook ere, Martxoaren 31n, arratsaldeko 7etan,** ikastetxea ikusi eta hezkuntza proiektua zein den iakitera.

Fiur iS2I2.1J J111.111}.rri ijju etik.

## AURREMATRIKULA EPEA: MAIATZAREN 3tik ira